

# Esnearen eta esnekien kontrol ofizialen ikuskaritza Espainian - FVO 2016

Europako Batzordeko Elikadura eta Albaitaritza Bulegoak (**FVO**) Espainiako esne eta esnekiei lotutako kontrol ofizialen azken ikuskaritzaren emaitzak argitaratu ditu.

Laburbilduz, produktu horiei egindako kontrol ofizialak ondo garatu dira, eraginkorrak dira eta, oro har, lege-betebeharren eta urteko plangintzaren arabera gauzatzen dira.

## **Ez zen aurkitu elikadura-segurtasunerako balizko arriskurik.**

Ikuskaritza-txostenaren emaitzei dagokienez, honako hauek aurki ditzakegu:

## **Gabeziak**

- Zenbait baimen eta kontroletan.
- Araudiaren ezarpenean, esne-ekoizpenaren ustiatzei dagokienez.
- Irizpide mikrobiologiko eta animalia-azpiproduktuei buruzko kontroletan.

## **Gomendioak**

- Animalia-jatorriko kontrolen neurriak hobetzea, bereziki esne eta esnekien kontroletan.
- Baimendutako establezimenduen zerrendak eguneratuta daudela bermatzea.
- Esne-ekoizpeneko ustiatzeietan higiene-betebeharren kontrol ofizialak aldizka eta maiztasun egokiarekin egiten direla bermatzea.
- *Listeria monocytogenes* eta *Salmonellari* buruzko esnekien elikadura-enpresen ustiatzaileen laginketa-planak egokiak direla bermatzea.
- Kontsumorako prest dauden elikagaien ekoizpenean diharduten enpresek eremuen eta ekoizpen-ekipamenduaren laginketa bat egitea *Listeria monocytogenes* antzemateko.
- Animalia-azpiproduktuak jasotzeko erabilitako ontziek identifikazio-betebeharrak betetzen dituztela bermatzea.

[Informe final de una auditoría realizada en España con objeto de evaluar el sistema de controles oficiales sobre la seguridad de los alimentos de origen animal, en particular de la leche y los productos lácteos - FVO 2016](#)

---

## **Euskadik higiene-araudia ekoizpen txikietara egokitzea arautu du 16/05/31**

Eusko Jaurlaritzak honako dekretu hau argitaratu zuen maiatzaren 24an: **6/2016 DEKRETUA**,

**maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena.**

Araudi-esparru berri honek aukera ematen dio nekazaritzako elikagaien sektoreari erkidegoaren eskakizunak **ustiategi txikien ezaugarri berezietara egokitzeko**, une oro euren ekoizpenen segurtasuna bermatuz. Dekretua **ekoizpen-bolumen mugatu bat** (dagokion Jarraibide Teknikoan ezarriko da) duten nekazaritzako elikagaien enpresa txikiei aplikatuko zaie.

Ekoizpen motak lehen mailakoa zein eraldaketakoa dira, eta **Euskal Autonomia Erkidegoan zuzeneko salmentaren edo merkaturatzeko zirkuitu laburraren bitartez merkaturatu ahal izango dira**, hau da, tokiko edo gertuko salmenta-modalitatean. Nekazaritzako elikagaien enpresek beharko dituzten baimenak eta erregistroak lehen mailako ekoizpeneko oinarritzakoak (REGA Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorra, REGEPA Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorra) izango dira, eta, horrez gain, Osasun Sailari jakinarazi beharko diote aurretik (REACAV). Dekretua **Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sailak eta Osasun Sailak** egin eta izenpetu dute elkarrekin.

**Higiene- eta osasun-betekizunen egokitzapena produktu edo produktu talde bakoitzari dagozkion Jarraibide Teknikoetan adieraziko da**, eta aurki onetsiko dira Autonomia Erkidegoko Agindu baten bitartez. Orain arrautzen eta esne-ekoizpenaren azpisektoreei dagozkien jarraibideak izapidetzen ari dira, eta, laster, egingo dira beste ekoizpen batzuk; esaterako, barazki-kontserbak eta marmeladak edo ogia eta opilak.

- [Deckretua laburtzen duen Poster-a](#) (gaztelianaz)

## **Dekretuaren edukia**

- **Helburua:** Europako higiearen eta osasunaren arloko araudia Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien ekoizpen txikietara egokitzea.
- **Aplikatzeko eremua:** ekoizpen-bolumen txikia eta familia-enpresaren egitura duten jarduerak, hala lehen mailako ekoizpena nola eraldaketakoa. Ekoizpen bakoitzaren tamaina eta bolumena zehaztuta egongo dira dagokion Jarraibide Teknikoetan.
- **Merkaturatzea:** Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta dago, eta tokiko edo gertuko salmentaren modalitatea izango du (salmenta zuzena edo merkaturatzeko zirkuitu laburra).
- **Baimenak eta erregistroak:** aurretiko jakinarazpena Osasun Publikoari (REACAV) eta lehen mailako ekoizpenaren arloko oinarritzako erregistroak (REGA, REGEPA).

## **Aurrekariak**

**Nekazaritzako elikagaien establezimendu txikiek larri ikusten dute euren errentagarritasuna**, Higiene Paketean ezarritako eskakizunak betetzeko egin behar diren **inbertsio ekonomikoak direla eta**, bereziki eraldaketarako instalazioei dagokienez. Euskal Autonomia Erkidegoan, **nekazaritzako elikagaien gero eta sektore eta kontsumitzaile gehiagok eskatzen dute osasun- eta higie- eskakizunen egokitzapenean aurrera egiteko**, arlo horretako erkidegoko araudietan ezartzen den moduan.

Hori dela eta, Parlamentuak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion Dekretu autonomiko baten bitartez Europako araudi horren egokitzapen bat aplikatu ahal izateko baldintzak erregulatzeko.

Agindu hori betetzeko, 2014ko otsailean Sailarteko Batzorde bat sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Sailburuordetzak eta Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak osatutakoa. Hortik aurrera, elkarrekin egin dute lan bi sailburuordetzek, Elikaren koordinazioarekin eta foru-aldundien eta nekazaritzako elikagaien arloko sektore-eragileekin batera.

Dekretu autonomiko hau argitaratu izana **aurrerapauso handia da**, zalantzarik gabe, **elikagaien tokiko ekoizpenaren eta merkaturatzeko zirkuitu laburren arloan egitasmo berriak ezartzeari eta garatzeari dagokionez edo lehendik zeudenak dibertsifikatzeari dagokionez.**

---

# Gipuzkoako teniasiari/zistizerkosiari buruzko azterketa 16/01/27

Teniasi-zistizerkosiari erreferentzia egiten dion konplexu parasitarioa zoonosi bat da, eta parasito beraren forma helduak (*Taenia Saginata*) eta forma gazte edo larbarioak (*Cysticercus Bovis*) sorrarazten dute. Gizakia (forma helduaren behin betiko ostalaria) infektatzeko modua behi-haragia gordinek edo gutxi eginda jatea da. Behiek (bitarteko ostalariak), aldiz, ahotik bereganatzen dute parasitosisia, pentsuen, bazken, uraren eta halakoen bidez. Horretarako, animalien jakiek parasito helduaren arrautzekin kutsatuta egon behar dute; gizakiak gorozkien bidez kanporatzen ditu arrautza horiek.

Gizakietan erregistratutako teniasi-kasuen bilakaerak gora egin zuela egiaztatu ondoren, eta ikusita 2000. eta 2004. urteen artean behi-aziendaren hiltegi-tako hil ondorengo azterketetan diagnostikatutako zistizerkosi-kasuak pixkanaka areagotzen ari zirela, Gipuzkoako teniasi-zistizerkosiaren zaintza aktibo protokolizaturako azterketa bat egitea proposatu zen. Azterketa horren emaitzak ikusgai daude Eusko Jaurlaritzaren [Osasun Publikoaren Sailak argitaratutako txostenean](#). Bertan, 2015-2013 aldiko datuak daude jasota.

Honako hauek dira ondorio aipagarriak:

- Gipuzkoako lurraldean egin den zaintza aktiboak iraun duen aldirian (9 urte), behien **zistizerkosi-kasuek behera egin dute**, % 0,02ra arte, eta gizakien teniasi-kasuak % 3,25eko prebalentziatik % 1,68ra igaro dira 2013an.
- Gipuzkoan, intzidentzia txikiko lurralde gisa katalogatuta badago ere, **ikuspegi epidemiologikotik begiratuta bere horretan jarraitzen du ziklo parasitarioak**, nahiz eta hori eteteko kontrol-neurriak ezarri diren.
- **Naturan egiten diren turismo- eta kirol-jarduerak eta ganadu-zaintzaileen higie- jardunbide okerrak** direla eta, bazkak eta urak kutsatu egiten dira parasitodun banakoek kanporatutako *Taenia Saginata*ren arrautzekin. Datuen azterketan ikus daiteke parkeek eta aisialdirako eremu naturalek kasuistika areagotzen dutela.
- Hiltegi-tako haragietan diagnostikoa egiten dela bermatzeko, beharrezkoa da kasu positiboak dituzten ustategietatik datozen animaliei hil **ondorengo azterketa egitea** eta, horrez gain, detekzio azkarrerako testak egitea hiltegian bertan eta kanal positiboak hotzaren bidez tratatzea.
- Konplexu parasitario hori dela eta, **osasuna sustatu behar da herritarren artean**, horri lotutako faktoreak ezagutarazteko **eta aholku batzuk emateko**. Hauek dira, besteak beste, aholku horietako batzuk: kirol- eta turismo-jarduerak egitean kaka aire zabalean ez egitea; haragi gordinek ez jatea, edo, bestela, haragi hori aldeztu aurretik izoztea.
- **Beharrezkoa da diziplina askotatik esku hartzea eta koordinazio-lanak ezartzea** esparru hauetako lan-arloen artean: laguntza-osasuna, osasun publikoa, animalien osasuna eta ingurumenaren osasuna.

[Informazio gehiago - Azterketa osoa](#)

---

# Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburua hegaztien hiltegiarentzat 15/10/26

Kataluniako Generalitateko Osasun Sailak Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburu bat (HJEG) argitaratu du **oilategiko hegaztien hiltegiarentzat**. Kataluniako elikagaien segurtasun arloko erakunde eskudunek ofizialki onartu dute gidaliburua.

Dokumentuak Kataluniako oilategiko hegaztien hiltegiarentzat errealitate guztiak jasotzen ditu. Elikagaien enpresek Arriskuen eta Kontrolgune Kritikoaren Azterketa (APPCC) ezarri eta mantendu behar dute; alabaina, **enpresa txikiek, jardunbide egokien gidaliburuak erabil ditzakete bakoitzaren APPCC sistema garatzeko tresna erraz eta eraginkor gisa**. Horrenbestez, hiltegi bakoitzak aztertu beharko ditu gida hau aplikatzeko bete behar diren baldintzak.

Gogorarazi behar da **dokumentu hau boluntarioa** dela eta ez dituela barne hartzen haragia zatikatzea, produktu landuak prestatzea eta etxean hiltzea.

Gidaliburuak kapitulu hauek ditu:

## **Arriskuen eta Kontrolgune Kritikoaren Azterketa**

### **Baldintzak**

Hornitzaileen plana eta animalien harrera, Edateko ura kontrolatzeko plana, Garbitze- eta desinfektatze-plana

Izurriak kontrolatzeko plana, Langileen prestakuntza- eta higiene-plana...

## **Animalien ongizatea**

Kapitulu honetan sartzen dira elikagaiak ekoizteko abeletxeetako hegaztien hilketa, larrialdiko hilketa eta gaixotasun kutsagarriengatik gauzatzen den hilketa, eta jarduera hauek deskribatzen dira:

1. **Makinak**
2. **Bizirik dauden animaliak garraiatzea**
3. **Animaliak deskargatzea**
4. **Nahasmendua**

**Urtean 150.000 hegazti baino gehiago hiltzen dituzten hiltegiak animalien ongizatearen arduradun bat izendatu behar dute**, hilketaren unean animalien ongizateari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko. Adierazitakoa baino animalia gutxiago hiltzen badira, ez da horrelako arduradunik beharko, baina hiltegiak, hala ere, bete egin beharko ditu animalien ongizatea bermatzeko baldintzak.

[Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburua](#) - ACSA

# Animalientzako sendagaien kontrola

## Katalunian 15/10/15

Kataluniako Generalitateak 2013. urteari dagokion animalientzako sendagaien ikuskaritza eta kontrol ofizialaren baitan egindako jardueren emaitzak argitaratu ditu.

### ABELTZAINZAREN ARLOKO EMAITZARIK AIPAGARRIENETAKO BATZUK

ESTABLEZIMENDU MOTA	EGINDAKO KONTROLAK	BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUZEN ESTABLEZIMENDUAK	ESPEDIENTEA ABIARAZTEA
<i>Banaketa-biltegiak</i>	6	5	0
<i>Zentro banatzaileak</i>	23	10	0
<i>Albaitari pribatuak</i>	11	4	0
<i>Abeltzaintza-ustiategiak</i>	945	81	9

Hautemandako gabeziak irregulartasun edo arau-hauste gisa sailkatu dira, larritasunaren arabera:

- **Irregulartasunak:** kontrol-jardueran hauteman diren jarduera hauek ez dute zehapen-espediente bat abiaraztea eragiten.
- **Arau-hausteak:** gabezia hauek zehapen-espediente bat abiaraztea eragiten dute, hala gabezia larria delako edo gabezia konpontzeko ezarritako epea errespetatu ez delako.

Katalunian 2013an hauteman ziren **irregulartasun gehienak dokumentalak** izan ziren (lan-prozedurak, erregistroak, errezetak...).

## **Animalientzako sendagaien eta haien hondakinen gaineko ikuskaritza- eta kontrol-jarduerak Katalunian**

Hauek dira animalientzako sendagaien eta haien hondakinen gaineko programak Katalunian:

1. **Animalientzako sendagaien erabilera arrazionalerako kontrol-plana:** Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Sailak (DAAM) egiten du.
2. **Hondakinen ikerketa-plana:** DAAMaren eta Kataluniako Osasun Publikoaren Agentziaren (ASPCAT) eskumena da.

Horrez gain, DAAMak beste programa batzuk ere baditu, animalientzako sendagaien erabilera arrazionalerako kontrol-planarekin zerikusia dutenak. Hauek dira, besteak beste:

1. **Abeltzaintza-ustiategietan higiena kontrolatzeko plana.**
2. **Animalien elikadura kontrolatzeko plana.**

DAAMek behi, ardi eta ahuntz esne gordinean inhibitzaileen presentzia ere kontrolatzen du, Behi, ardi eta ahuntz esne gordinaren ekoizpen primarioaren baldintza higieniko-sanitarioen ebaluazio-eta kontrol-programa izenekoaren bitartez.

## Animalientzako sendagaien erabilera arrazionalaren kontrola

Animalientzako sendagaien erabilera arrazionalaren kontrol-planaren helburua da animalientzako sendagaien banaketa-, aginte- eta emate-baldintzak bermatzea, bai eta elikagaiak ekoizteko erabiltzen diren animalietan sendagai horiek arrazionalki erabiltzen direla bermatzea ere. Planak honako hauek hartzen ditu barne:

1. Animalientzako **farmaziako produktu berezituak** eta aurrez **fabrikatutako sendagaiak**.
2. Sendagaidun **pentsoak egiteko erabiltzen diren aurre-nahasketa sendagarriak**.
3. Albaitariaren aginduz farmazialari batek prestatutako **formula magistralak** eta prestakin ofizinalak.
4. **Animalientzako autotxertoak**.

Ikuskatzeak hemen egin dira:

1. Animalientzako **sendagaien banaketa-biltegietan**.
2. Animalientzako **sendagaien zentro banatzaileetan**.
3. Animalientzako **autotxertoak egiten dituzten zentroetan**.
4. **Albaitari pribatuetan**.
5. **Abeltzaintza-ustiategietan**.

Ikuskatzea honetan datza:

- **Administrazio-kontrola** bisita egin aurretik, beharrezko baimenak dituela ziurtatzeko (edo, albaitarien kasuan, albaitaritze botika-kutxa duela jakinaraztea).
- **Instalazioetara bertaratzea**, ikuskatzeko, eta animalientzako sendagaien daudela eta bertan gordetzen direla egiaztatuzko.
- Hornitzaileen **erregistroen**, sarreraren, trazabilitatearen, errezeten eta tratamenduen kontrol dokumentala.

Katalunian, sendagaien ikuskaritzea- eta kontrol-jardueren osagarri, Sendagaidun pentsoen kontrola eta Animalientzako sendagaien erabileraren alerta-kudeaketa ere egiten dira.

Txostena "[Animalientzako sendagaien eta animalietan zein animalia-jatorria duten elikagaietan aurki daitezkeen sendagai hondakinen ikuskaritzea eta kontrola Katalunian](#)" GENCAT

---

## [Elikaren webgunean ikusgai daude](#) ["Ustiategietako azpiproduktuak kudeatzea"](#) [ikastaroko aurkezpenak 15/06/29](#)

Abeltzaintzako ustiategietan hondakinak eta azpiproduktuak egoki erabiltzeari buruzko ikastaro bana egin zuten **Fraisoroko eta Derioko nekazaritza-eskoletan, ekainaren 9an eta 10ean**, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, HAZIko nekazaritza-eskolek eta ELIKAk antolatu zuten

ikastaroa, **Euskal Herriko abeltzaintza-ustiategietako aholkularientzat**. Helburua zen aztertzea zer-nolako eskakizunak ezartzen dituen legeriak abeltzaintza-ustiategietan sortzen diren hondakinak eta azpiproduktuak egoki kudeatzeko eta ezabatzeko.

Horrez gain, hondakin edo azpiproduktuak (animalien gorpuzkiak, adibidez) oker erabiltzeak eta behar bezala ez ezabatzeak zer osasun-arrisku dakartzan ere azaldu nahi izan zen, bai eta horretarako dauden alternatiben berri eman ere.

Horretarako, **Antonio Sáenz Feijóo** jauna aritu zen irakasle. Feijóo jauna Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren (MAGRAMA) Nekazaritzako Ekoizpenaren Osasunaren Zuzendaritza Nagusiko kidea da. **Abeltzaintza-ustiategiei eragiten dien SANDACH azpiproduktuei buruzko legeriaren** azalpen laburra eman zuen.

Ondoren, **Alberto Díez** jauna izan genuen gurekin, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko (UCM) VISAVET Albaitaritza eta Osasun Zaintzarako Zentrokoa. Albertok **Madrilgo Erkidegoan gorpuzkiak eta bestelako azpiproduktuak kentzearen eta ezabatzearen inguruko errealitatea** azaldu zuen; halaber, puntu kritikoak nabarmendu zituen osasunaren eta biosegurtasunaren ikuspegitik, eta alternatiba posibleak planteatu.

Azkenik, **Juan Ramón Oribe Pedruzo** jaunak, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuko albaitari ofizialak, **Araba probintziako ustiategien egoera zein den azaldu zuen, bai eta Euskal Herriko Kontrol Ofizialeko Programetan eskatzen dituzten oinarrizko neurriak zein diren ere**.

Berrogei profesionaletik gora elkartu ziren ikastaroan; gehienak Euskal Herriko abeltzaintza-ustiategietako zerbitzu teknikoekin lotuta zeuden.

**Ikastaroko aurkezpenak [esteka honetan](#) daude ikusgai.**

---

## **[Higiene-jardunbide egokien gida eztiaren sektorera 15/03/02](#)**

Aragoiko Elikaduraren eta Nekazaritzako Elikagaiak Sustatzeko Zuzendaritza Orokorra sustatu egin du **eztiaren sektoreko higiene-jardunbide egokien gida**. Sektorea bera aritu da horretan lanean, Abeltzaintzako Osasun Defentsako taldeetako teknikarien eta Abeltzaintza Baliabideen Zerbitzuko funtzionarioen bidez.

Gaur egun, Aragoian **1.219 erle-ustiategi daude erroldatuta**; guztira 104.082 erlauntz dira, eta **urtean 619 tona ezti** inguru ekoizten dituzte. Ustiategi gehienak (% 68) txikiak dira: erroldaren % 30 eta ezti-ekoizpen guztiaren % 10 dira. Gainerakoetan ustiapen komertziala egiten da, bai beste jarduera batzuen osagarri gisa (ustiategien % 30 eta erlauntzen % 60), bai eksklusiboki (ustiategien % 2, erlauntzen % 20 eta ekoizpenaren % 30).

Gidaren **helburua da erraz aplikatzeko tresna operatibo bat ematea erlezainei**, erabat egoki daitezen arauk ezarritako eskakizun guztietara; gainera, besteak beste, honako atal hauek biltzen ditu:

- Eztiarekin lotutako arriskuak.
- Eztiaren sailkapena.
- Fluxuaren diagrama.
- Higiene-jardunbide egokiak erletxean.
- Jardunbide egokiak ezta biltzeko, ateratzeko eta egokitzeko prozesuetan.

[Higiene-jardunbide egokien gida, eztiaren sektorerako](#) - Aragoiko Gobernua  
[Aragoiko erlezaintzari buruzko webgunea](#) - Aragoiko Gobernua

---

## [Europak ohantzea ustiategian erregai modura erabiltzea baimendu du 14/09/01](#)

Joan den ekainaren 4an, Europako Batzordeak [592/2014 Araudia](#) argitaratu zuen, [142/2011 Araudia](#) aldarazten duena, animalien azpi-produktuak kudeatzeko osasun-neurriei buruzkoa.

Aipatutako aldaketaren arabera, joan den **uztailaren 15az geroztik ohantzea (hegaztiak hazi diren zorua) erabil daiteke erregai legez, abeletxean alde aurreko eta in situ tratamendurik gabe.**

Oilo-gorozkiak erregai legez erabiltzeko, zenbait baldintza bete behar dira, hala nola, nolako hauek:

- Erretze-plantak **agintaritza eskudunaren baimena izan behar dute.**
- Erabiliko den ohantze zaharra **azalera gogor eta ondo drainatuaren gainean biltegiratu** behar da.
- **Animaliak ezin izango dira bertara sartu.**
- **Hondakinen igortzea** ahal beste murriztu beharko da.
- Higiene-neurrien artean ohantzea biltegiratzen den lekutik eratorritako **hondakin-uren maneiatzea** jaso behar da.

Sektorearen zati batek neurri hori optimismoz jaso badu ere, azaldu egin du osasun-arriskua eragin daitekeela aurreko ekoizpeneko hegazti sorta baten hondakinak hazkuntza berria abiarazten den nabearen alboan metatzean, arestian aipatutako baldintzetan eskatzen denaren ondorioz.

---

## [Betekizun berriak oilasko eta untxien hiltegiatan 14/05/29](#)

Maiatzaren 10etik aurrera, **eskortako hegaztien eta lagomorfoen (erbiak eta untxiak) hiltegiatako langileek laguntza eman dezakete kontrol ofizialetan.** [340/2014 Errege Dekretua](#) argitaratzearekin batera sartu dira indarrean Espainian aipatutako espezieen hiltegiatan egiten diren kontrol ofizialetan laguntzeko araudi berriak. Arauak Europako legegintzaren aukera bat



garatzen du, higie-ne-kontuetan; zehazki, estatu kideei eskumena ematen die, hilte-gietako langileek kontrol ofizialetan laguntza eman dezaten, baldintza jakin batzuetan eta albaitari ofizialaren kontrolpean.

[854/2004 Araudia](#), giza kontsumorako animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeko arau zehatzak ezartzen dituena, araupetu egiten ditu albaitari ofizialen eta laguntzaile ofizialen jarduera hilte-gietan, eta estatu kideei eskumena ematen die, araudiak berak ezarritako baldintza zehatzei jarraikiz, azken horien zereginetako bat establezimendu horietako langileek egin dezaten, kontrol ofizialetan lagunduz.

### **Kontrol ofizialetan laguntzaile aritzeko, hilte-gietako langileek bete beharreko baldintzak honako hauek dira:**

1. 854/2004 Araudiaren I. eranskinaren IV. kapituluaren III. atalean (hilte-gietako laguntzaileei buruzko zatia) zehaztutako **kontzeptu praktiko eta teorikoen arabera prestakuntza eta kualifikazioa izan behar dituzte**; esate betarako, honako hauen inguruko prestakuntza izan behar dute: **animalien gaixotasunak, abereak hazteko jardunbide egokiak, ustiate-gietako instalazioak, animalien karga eta deskarga, lege-xedapenak...**
2. Bertaratzen direnen prestakuntza egiaztatze-ko, lanbide-heziketako agiria edo profesionaltasun-**ziurtagiria behar da**; bestela, agintaritza eskudunak onartutako agiri bat eduki beharko da, ahalbidetu egiten duena egiaztatzea araudiak ezarritako prestakuntza-betekizun guztiak betetzen direla. Egiaztagir horrek lurralde nazional osoan balioko du.
3. **Laguntzaileen jarduerak albaitari ofizialak gainbegiratuko ditu**; zehazki, ebaluazio-azterketak egingo ditu maiztasun jakin batekin, azterketa horien froga dokumentalak utzita.

Beste alde batetik, autonomia-erkidegoko agintaritza eskudunak (AE) xedapen hori baimen dezan, hilte-giek honako hauek egin behar dituzte:

1. Agintaritza eskudunari jarduera-plan bat aurkeztea, **APPCCak** (Arriskuen eta kontrol-gune kritikoen analisia) aintzat hartuta.
  2. Gutxienez azken hamabi hilabeteetan 854/2004 Araudiak ezarritako **higie-ne-jardunbide egokiak betetzea**.
  3. APPCC sisteman oinarritutako sistemak ezartzea.
  4. **Establezimenduaren historial bat aurkeztea**, araudiak ezarritako betekizunak betetzeari dagokionez.
  5. **Ekoizpen- eta ikuskaritza-erregistro fidagarriak izatea**, sistemaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko, ezarri baino lehen eta ondoren.
  6. Lantzen diren hildako animalia-, haragi- eta produktu-motak ezagutaraztea, eta eragin dezaketen **arriskuaren inguruan egiten diren lanen berri ematea**.
  7. **Ezagutza teoriko espezializatuak izatea**.
- [340/2014 Errege Dekretu](#) berria

---

## **[Betekizun berriak Kataluniako abeltzaintza-](#)**

# ustiategiatarako 14/04/03

Joan den martxoaren 27an argitaratu zuen Kataluniako Gobernuak [40/2014 Dekretua](#), abeltzaintza-ustiategi guztiek bete beharreko **xedapen orokorrak ezartzen dituena**. **Apirilaren 17an** sartuko da indarrean dekretua.

Gaur egun, arau asko daude abeltzaintza-ustiategiak arautzeko, eta horrek zaildu egiten du abeltzainek arau horiek ulertzea eta aplikatzea. Hori dela eta, xedapen honen helburu nagusia da, batetik, zehaztea zein betekizun bete behar dituzten abeltzaintza-ustiategiek eta, bestetik, abeltzaintza-ustiategien Erregistroa garatzea, **modu argian eta prozedurak sinplifikatuz**.

Dekretuak lehentasuna ematen dio **biosegurtasun-neurriak** ezartzeari, besteak beste honako hauek ezartzeari:

- Abeltzaintza-ustiategien **perimetroan itxitura** jartzea (perimetroan hesia izan behar duten ustiategi guztiek bi urteko epea dute hori gauzatzeko. Salbuespen bakarra hausnarkarien ustiategiak dira, horiek hiru urteko epea baitute).
- Neurriak hartzea animaliei gaixotasunak transmititu ahal dizkieten **bektorekiko kontaktuaren** aurrean.
- Ustiategiko **bajak egoki kudeatzea**.
- Abeltzaintza-ustiategien **kokapenaren baldintzak**, biosegurtasuna bermatzeko oinarritzko printzipio gisa.

**Erregistroei** dagokienez, abeltzaintzarekin lotura duten **operadoreen direktorioa osatu** da.

**Baimenei** dagokienez:

- Erraztu egin dira izapideak **abeltzaintza-ustiategien erregistroan izena emateko**, eta hainbat izapide mota ezarri dira instalazioko jardueraren arabera: baimen-izapidea eta komunikazio-izapidea.
- Sailaren **eskualdeko bulegoak gauzatuko du beti erregistroan izena ematea**.

[Informazio gehiago](#)